



ARRAMENDIKO KASKOA HUSTU DIGUTEN.



ARRAMENDIKO KASKOTIK.

"ARRAMENDI" GOGOAN

MARTIN TEJERIA-EIZMENDI

Eta ez dakit zergatik. Eta agian, inortxok ere ez daki zergatik. Eta zertaz ari naizen galdatzen badidazu ba, oraingoan ere ezina gertatuko zait esplikaziorik ilustratzea. Are ezinago esplikazio dialektikorik. Kontuz ibili behar omen delako eta kontuz ibiliz gabiltzalako. Halare ez jakite hori, gure ezinaren mugek, gorrotoaren eta bizitutako—isildutako—gertakizunen mugak estali dituelako da. Eta batera datoz gauzak, edo amilka soil soilik. Batek ez daki zer egin eta batek askotan ez daki—eta ez du nahi—gauzak egiten hasteko behar diren hastapenak ere egiten hasi. Halako hirian bizi da bat edo hauzo izan nahi ez duen herrixkan edo eta Errenteria bezalako herri nahitaezko handiputz eta zaratatsu batetan.

Eta herri honetan asnasa hartzeak ez du aspaldion ia lekurik, beste anitz gauzekin batera—irudimenarekin etabar—anka egin bait zuen egun batez, Papelerako ke urdinekin ez baina bai zortzi, hamar eta hamabi ordu larri eta hestuen arteko izerdiekin. Eguneroko ezinean ikusi ohi dugu hileta berri bat gure aspaldiko kaleetan, ilusioaren etxe zabalean amets ilun eta zoro zirelako haik behin berriro zatitzen eta apurtzen. Hirugarren klaseko hamaika hileta zital kantatu ohi digute belarrien axalera nahiz urdailik sakonenera Txipitonetik hasi eta Papelerako ke urdinetara heldu bitarte, beti kanta bera:

honek ez tik ez tik ez tik...

Horrek ez dut uste eztiarekin zer ikusi duenik. Eta arboldegiekin ere ez baina ez pentsa, udaldeko egunen beroak bultzagarri oso ditugu, zumarren edo haritzen itzalpe freskoan etzateko. Eta hori nahiko patxadatsu, nahiko atsedengarri litzateke, hainbat eta hainbat gorriarazten gaituen urteotako sargoria zakarretan batez ere. Baina hori beste kontu bat da edo zen, ez bait da atzo goizekoa zumarrak eta gaztainondoak zerratu zizkiguteneko hura. Orain progresoak eraginda, Arramendiko kaskoa hustu diguten, ebaki diguten bezalaxe. Eta gu—modan dago eta—gu diot, ez gara aurre-

rapenaren eta progresoaren etsai baina etxeko euli ferian zakurra saldu behar izan genuen eta orain batek ez du zakurrik, ez eta igande goizetan eta arratsalde epeletan haize eman dezaiokeen kaskorik, Arramendiko kaskorik. Eta kamioka eramandako miloi, biloi eta gehiago zentimetro kubikoekin batera bidali gintuzten zakurra eta ni pikutara.

Hauze zen kaxko zaharrari buruzko gure pena eta errabietako bat. Ez dute kontutan edukitzea ere merezi pena eta errabia aski baretsuak bait dira, mutxurdin zimurtuek erabiltzen dituztenak bezain laburrak eta zimurrak. Baina egia esan, horrexegatik nahi genituen kaskezurretako beste zenbait gauzekin eta gauza ez diren hainbat ezinekin paperezko plazara eraman. Zenbaitetan gauzak eta gauzekin batera gure solasak eta berritsukeriak nahastuxeak dabiltzalako, eta dagoe-neko batek daki zergatik nahastekatu ote ditudan zumarrak eta haritzak, hauzo izan nahi ez duen herrixka—herri ttikia—aipatzera iritsi arte. Eta abarrak, eta gero zakurrak... Salatariak alde batetik. Eta amorratuak besteak, gertakizun tamalgarri hoinbeste, alukeria hoinbeste ikusteak errabia eta nazka sortarazten dien hoitakoak. Noizean behin etxeko ataritik bertatik ohia eta zaunka egiten dutenak. Ijitoak heldu direla etxeko inor konturatuko ez bada ere hor bueltaka xaxa eta zaunka, hortzaginak lehertu arte erakutsiz, ezin egonean arituko direnak.

Baina ez jaunak, ni ez natzaizue adarra jotzen ari, ni kontuz ibiltzen salatzen den xotil hoitakoa nauzue. Eta musikaz ari garenez, erditan zer arraio ari garen ez dakigu-ta zakurrak bakarrik daki hemen—oraingoz—zakurraren bioliña jotzen. Eta kanpoko zakur alu horri gure lan tresnen eta gure txorien kantu hotsa gustatzen ez zaiolako egiten du zaunka etxeko zakurrak. Hori hala omen dela dio kalean zenbaitek, baina nik ez dakit egiaz ezer. Ni aspaldi honetan kontuz ibiltzen, saiatzten naiz eta kito.